

Australiako wombat martsupialioak egoera larrian

Wombat izena ezezaguna egingo zaizue gehienei. Ozeanian, aldiz, nahikoa animalia ezaguna dela esan dezakegu. Gaur egun, Australiako iparraldean bizi den ugaztun martsupialio honen egoera ez da baxua. Wombat sudur-iletsuaren habitat nagusia Queensland estatua izan arren, oso arraroa da lurralde horretan alerren bat aurkitzea. Zientzilarien datuen arabera, hiru wombat sudur-iletsu espezieetan soilik 65 ale gelditzen dira bizirik, guztiak Epping-eko parke nazionalan.




Wombat izeneko martsupialioa erakusten digu goiko argazkiak; egiazki zaila da alerren bat bere habitatean ikustea, gero eta urriagoak baitira. Lehorteak eta inguruaren degradazioak zerikusi zuzena dute egoera kezkarri honetan.

Ugaztun bitxi hau sedentarioa, gautarra eta antisoziala da. Bonbatidoen familiakoa, gorputz lodikote eta iletsua du eta isatsik gabea da. Egunez gordeleku batean lo egiten du; gauean, berriz,

belarra jatera ateratzen da. Neguan gaueko lehenengo orduetan ateratzen da gordelekutik eta udan gauaren azken orduetan abiatzen da elikagaiak miaztera. Andrew Woolnough eta bere taldea martsupialio honen portaerak ikertzen ari dira espeziea salbatzeko itxaropenaz. Hala ere, wombat-populazioa krisialdi kezkarri dago, habitat naturala sunsitzitzen ari delako, lehorteak eta lehiakide dituen abereen ugalketa direla medio.

Tximeletak eta biopestizidak

Gaur egun erabiltzen diren biopestizidak onak izan arren, hauenganako erresistentzia nekazariak uste baino bizkorrago gara daiteke. *Plutella xylostella* tximeleten ikerketa batek azaldu duenez, erresistentzia urte gutxi bartzuetan zabaldu egin daiteke, tximeleta horiek *Bacillus thuringiensis* bakterioek sortutako toxinekin kontaktuan badaude behintzat. Bakterio honetako mota desberdinek ehundaka Bt toxinak ekoizten dituzte, baina bakan batzuk baino ez dira baliagarriak izurritei aurre egiteko. Honenbestez, zientzilariek toxina bakoitzaren aurkako erantzun genetikoa bilatu nahian gogor ari dira lanean. EEBB eta Kanadako ikertzaileek bi tximeleta-mota aztertu



Urosaurus ornatus muskerraren kolore-aldaketa.

dituzte. Mota batekoek Bt toxinen eragin handia jasan zuten eta beste motakoek ez zuten eraginik jaso azkeneko 100 belaualdietan. Gurutzatutako esperimentu batzuk egin ostean, ikertzaileak ondorio honetara iritsi dira: toxina batekin bizirik iraun duten tximeleta-kumeak lau toxinekin ere bizirik aterako dira. Ikertzaileek diotenez, tximeleten % 21ek dute erresistentzia genea (biologoek aurrez uste zutena baino askoz ere kopuru handiagoa da).

Muskerra eta temperatura

par Amerikako Arizonako basamortuan *Urosaurus ornatus* izeneko musker-espeziea bizi da, baina ez da musker arrunta. Tenperaturak gora egiten duenean, musker arrunten larruzalaren kolorea aldatu egiten da. Goizean berde argia da azaleko kolorea, baina temperatura 30° zentigradura igotzen denean urdin turkesa bihurtzen da. Ordu beroenetan, berriz, kolorea urdin kobaltoa da.

Estatu Batuetako Maryland-en Hood College-n ari den Randall Morrison herpetologoak aztertu ditu narrasti txiki hauek, fenomeno ulertu nahian. Azaleko kolorea bertako pigmentu-zelulek beroarekiko duten erreakzioagatik aldatzen da. Zelula iridoforo deitutako hauek hazi eta zabaldu egiten dira tenperatura igo ahala, bertako kristalen kokapena aldatu egiten delarik. Ondorioz, azalak islatzen dituen argi-izpien uhin-luzera aldatu egiten da urdin aldera.

Muskerrak ez du kontrolatzen termometro bizidun bihurtzen duen ezaugarri psikologiko eta optiko hau eta energi gastua eragiten dio. Dena den, muskerrak kolore-aldaketak direla eta bere etekina ateratzen du. Kolore argiena duenean harrapariak ikustea zailagoa da eta urdintzen denean emeen inguruan nabarmendu eta lehiakideak etsiarazten ditu.

